

BERRIKUSTE	ARRAZOI	DATA
00	Hasierako dokumentua	2024-10
Berdintasun - Batzordeak egina	Berrikustzailea: Organizazioa	Onartua:Zuzendaritza Nagusia

**BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA**

Zuzendaritzak berdintasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin konpromisoa hartzea funtsezkoa da lantaldea zeregin horretan inplikatzeko eta denon artean lortzeko berdintasun-plan hau tresna eraginkorra izan dadila laneko giroa hobetzeko, lantalde osoaren gaitasuna eta ahalmenak hobetzeko eta, horren bidez, bizi-kalitatea hobetu eta produktibitatea areagotzeko.

Plan hau egiteko, enpresaren barruan emakumeek eta gizonek duten egoera eta posizioa aztertzeke diagnostiko bat egin zen, neurriak hartzea eskatzen duten zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioak edo desberdinkeriak detektatzeko eta berdintasunarekiko errespetuaren oinarritzko printzipioari dagokionez egon daitekeen edozein desbideratze zuzentzeko.

Benetako berdintasuna lortzeko ez da nahikoa sexuagatiko diskriminazioak saihestea (tratu-berdintasuna). Horrez gain, berdintasuna lortu behar da emakumeek eta gizonek enpresara sartzeko eta kontratatuak lortzeko dituzten aukeretan, baita gainerako arlo hauetan guztietan ere: lan-baldintzak; enpresan gora egiteko aukera; prestakuntza; ordainsariak; bizi- eta pertsonalaren, familiakoaren eta lanekoaren kontziliazioa; laneko osasuna; etab.

Testuinguru horretan, ALOKABIDEko Zuzendaritzak bere gain hartzen du BERDINTASUNARI ETA ERRESPETUZKO LAN-BALDINTZEI EUSTEKO KONPROMISOA, hala oinarritzko langileen artean nola aginteko karguen artean.